

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	GAINAZALAK PRESTATZEKO OINARRIZKO TEKNIKAK.	Iraupena	90
Kodea	MF0622_1		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen karrozeria		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen karrozerietako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Oinarrizko mekanizazioa (Zeharkakoa)	Iraupena	90
	Elementu mugigarriak ordeztzeko oinarrizko teknikak.		90
	Ibilgailuen karrozerietako mantentze-lan osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0622\_1: GAINAZALAK PRESTATZEKO LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-atalarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailuaren gainazala behar bezala prestatzea, geroago hondo-tratamenduak emateko.

E11.1 Gainazalen ezaugarrien arabera, prozesu baten edo bestearen aplikazioa aztertzea.

E11.2 Pintura zaharreko ertzak eta koskak ezabatzeko lixatze-prozedurak aplikatzea eta estaliko ez diren itsasgarri edo anagramak kentzea, kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela.

E11.3 Pintura-hondarrak ezabatuz gainazalak desugertzeko teknikak (kimikoak eta fisikoak) aplikatzea kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela.

E11.4 Tratatu beharreko eremuak garbitzeko eta koipegabatzeko prozedurak aplikatzea, kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela.

E11.5 Laneko eta ingurumen-inpaktuko arriskuak prebenitzeko arauak betetzea.

A2: Estaltzeko eta estalgarriak ezabatzeko metodoak aplikatzea eta lainoztatuko ez diren eremuak babesteko behar diren ekipoak eta materialak zehaztea.

E12.1 Estaltzeko metodoak azaltzea.

E12.2 Estalgarriak ezabatzeko prozesuetan erabilitako materialak, tresnak eta erremintak ezagutzea.

E12.3 Estaltze-teknikak (partzialak nahiz erabatekoak, barrukoak nahiz kanpokoak) aplikatzea, kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela.

E12.4 Estaltzeko produktuak (papera, estaltzeko filma, zorroak eta abar) erabiltzea espezifikazio teknikoak betez, kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela.

A3: Lan-eremua arriskurik gabe mantentzea eta jarduerak sortutako hondakinak garbitzea eta gaika biltzea.

E13.1 Gainazalak lixatzeko, desugertzeko eta tratatzeko lanek dituzten arriskuak azaltzea.

E13.2 Jarduerarako norbera babesteko ekipoa erabiltzea.

E13.3 Lanek egitean ordena, lan-postuen garbiketa eta hondakinen gaikako biltzea bultzatzea.

E13.4 Ekipoak eta erreminten mantentze-lanak eguneroko egitea, erabiltzaile-mailan.

E13.5 Babes kolektiboko ekipoak egoki erabiltzea.

##### Edukiak

#### 1. Gainazalak prestatzeko eta berdintzeko ekipoak.

- Urratzaile (lixa) baten oinarrizko osaera eta nomenklatura.
- Lixatzeko euskarriak.
- Lixatzeko takoak.
- Lixagailuak.
- Desugertzaileak.
- Aire beroko sopelea.
- Lixatze-hautsa xurgatzeko ekipoak.
- Garbitzeko ekipamendua eta produktuak.

#### 2. Estaltzeko produktuak eta tresnak.

- Maskaratzeko beharra.
- Gainazalak estaltzeko produktuak: zintak, papera, filma eta estaltzeko burleteak, besteak beste.

- Ekipamendu osagarria.

### 3. Ibilgailuen gainazalak prestatzeko laneko eta ingurumen-inpaktuko arriskuak prebenitzeko arauak.

- Karrozeria- eta pintura-lantegiko arriskuak.
- Segurtasun-seinaleak.
- Makinen eta erreminten ezaugarriak.
- Norbera babesteko ekipoak (NBEak).
- Hondakinen gaikako bilketa.
- Lantegiko ordena eta garbiketa.
- Makina eta ekipoen oinarriko mantentze-lanak.
- Produktu toxikoen edo arriskutsuen etiketak.
- Produktu kimikoen manipulazioa.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen karrozerietako mantentze-lan osagarriak